

# 2024 FORMAKUNTZA BERRIKUNTZAN

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque

- Lehen Seihiilekoa -

 **innobasque**  
Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

## Sarrera

### ETEentzako formakuntza

#### MERKATUA

- Bezeroak fidelizatzeko estrategiak.

#### DIGITALIZAZIOA

- Manufaktura-industriako ETEen digitalizaziorako sarrera.
- Manufaktura-industriako ETEetan produkzio-prozesuak eta makineria digitalizatzea.
- Manufaktura-industriako ETEetan kudeaketa-sistemak digitalizatzea.

#### PERTSONAK

- Bezeroak eta talentua erakartzeko marka-estrategia.
- Pertsonen konpromisoa eta lan-absentismoa. Aldaketa kultural baten funtsezko faktoreak.
- Erakunde adimendunak: Ezagutza kritikoa eta adimen artifiziala, lehia-abantailak sortzeko gakoak.

#### NEGOZIO-EREDUAK

- Saldu ondoko zerbitzua: kostuen zentrotik negozio-aukerara.
- Ezagutu nola lagun diezazukeen negozio-ereduaren berrikuntzak zure ETEaren oraingo eta etorkizuneko erronketan lan egiten.

#### FINANTZAKETA

- Gobernantza eta finantza-eraginkortasuna, enpresa-berrikuntza bultzatzeko.
- Nola finantzatu berrikuntza: zure berrikuntza-proiektua egin ezazu.
- Eraiki negozio-plan sendo bat zure enpresaren berrikuntza finantzatzeko.

#### PRODUKTUA

- Nola berritu produktua bere osotasunean hartuta.

### I+G+b nazioartekotzeko prestakuntza

- I+G+b nazioartekotzea. EBren eginkizun dinamizatzailea eta finantzatzailea.
- Europako I+G+b proiektuen plangintza estrategikoa.
- Horizonte Europara sartzeko ikastaroak, RIS3 gaiaren arabera.
- Horizonte Europarako I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko: 4 saioak.

### Innobasqueko bazkideentzako formakuntza

#### ETORKIZUNEN JOERAK

- Adimen Artifizial Sortzailea: 4 saio.
- Hezkuntzarako Adimen Artifizial Sortzailea: 4 saio.
- Erosketa Publiko Berritzailea: 2 saio.

#### NOLA KUDEATU BERRIKUNTZA

- Berrikuntzaren ABCa
- Gure ingurunea zaintzea berritzeko eta etorkizunari aurrea hartzeko: Lehenengo urratsak
- Nola egin roadmapping teknologikoa
- Nola planifikatu eta antolatzen dut I+G saila nire enpresan

#### I+G ETA BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK

- I+Grako pizgarri fiskalen eta berrikuntza teknologikoen berritasunei buruzko ikastaroa

## SARRERA

# Presta zaitez berrikuntzan

Programaren eskaintza oso zabala da, hainbat ikastaro berrirekin. Jakintzaren arlo bakoitzean entzute handiko adituek emango dituzte ikastaro horiek. Ikastaroak doakoak dira, eta enpreetan eta erakundeetan eragin handiena izan dezaketen prestakuntza-beharrizanei erantzuteko daude diseinatuta. Hauek lirateke arlo horietako batzuk: finantzaketa, merkaturatze eta negozio-eredu berriak, digitalizazioan edo pertsonen arloan berritzea, etorkizuneko joerak, berrikuntzaren eta i+G arloaren kudeaketa, Europako funtsak eskuratzea... Bloke bakoitza hartzaile jakin batzuei zuzendurik dago berariaz.

Katalogo honetan kontsulta dezakezu prestakuntza-programa osoa.



# ETE-ENTZAKO FORMAKUNTZA

## Bezeroak fidelizatzeko estrategiak



IZENA EMAN HEMEN

### – Datak eta ordutegia

Azteazkena, Otsailak 28. 9:30etatik 13:30etara.

### – Formatua

Aurrez aurrekoa.

### – Lekua

Arima Hotel (Magnolia Gela). Miramon pasealekua 162, Donostia.

### – Iraupena

4 ordu.

### – Plazak

35 pertsona.

### – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik, eta:
  - bezeroak fidelizatzeko estrategiak diseinatzeko beharra edo interesa dutenentzat.
  - bezeroak fidelizatzeko estrategiak bezeroen beharretara egokitu nahi dutenentzat.
- Gerenteak, marketineko arduradunak eta komertzialak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

### Ikaskuntza-helburuak

Bezeroarekiko harreman-eredua ulertzea fidelizazioaren funtsezko ardatz gisa.

### Prestakuntzaren edukiak

- Bezeroarekiko harreman-eredua ezagutzea
- Erakundearen entzutea nola kudeatzen den
- Entzute erreaktiboa vs entzute proaktiboa
- Fidelizazioarako funtsezko CRMa
- Fidelizazioarako tresnak
- Digitalizazioa bezeroen fidelizazioan
- Fidelizazioaren onurak
- Leialtasuna vs Fidelizazioa
- Bezeroen leialtasuna eraikitzeke elementuak
- Bezeroak fidelizatzeko funtsezko bezeroari orientazioa ematea

### Norekin



#### Elen Orolaga

**Eurogap-eko Aholkularitzako zuzendaria**

Bere esperientzia profesionala % 100ean merkatura bideratuta dago, bezeroekiko eta kontsumitzaileekiko sentsibilitate handiarekin, eta enpresen balioa eta negozioa sortzeko ikuspegi

argiarekin, marken eta produktuen hausnarketatik, merkaturatsetik eta komunikaziotik abiatuta. Enpresa administrazio eta zuzendaritzan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, marketin masterra eta eskaeran oinarritutako merkataritza estrategien berrikuntza graduondokoa Georgia Tech University Atlanta AEBn.

# Manufaktura-industriako ETEen digitalizaziorako sarrera



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, Martxoak 7. 9:30etatik 13:30etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa (CFAA), 202. eraikina, ELKARLAN aretoa. Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

## – Iraupena

4 ordu.

## – Plazak

24 pertsona.

## – Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
  - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
  - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produkzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Fabrika-plantaren mailan produkzio-ingurunea digitalizatzearen potentziala, alderdi nagusiak eta jardun-arloak azaltzea.
- Kudeaketa-prozesuak digitalizatzeko aukerak eta abantailak erakustea, bai eta industriako ETEetan lotutako eta sortutako datuak ere.

\* Ondoren fabrikazio-laboregira bisita egiteko aukera egongo da.

## Prestakuntzaren edukia

- Zer da digitalizazioa?
- Lantegi batean zer digitaliza daitezkeen eta zer abantaila ekar ditzakeen bi arlotan:
  - produkzio-prozesuen eta makinaren eremuan.
  - kudeaketa-/informazio-sistemen eremuan, eta horien integrazio bertikala eta horizontala.
- Nola heldu digitalizazio-proiektu bati tailer batean.
  - Etapa nagusiak.
  - Dauden metodologiak.
- Diagnostiko orokorreko ariketa (AFMren T1000 autodiagnostikoko metodoaren bidez).
- Hurbileko kasu praktikoak azaltzea.

**ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: AFM.**

## Norekin



### Nerea Aranguren

**Ideko-ko zuzendari nagusia/Danobatgroupeko Berrikuntza zuzendaria.**

20 urte baino gehiagoko eskarmentua du fabrikazio aurreratuaren esparruan lan egiten duten taldeen gidaritzapean, beti ere berrikuntza ardatz nagusi izanda. Berrikuntza estrategikoan doktorea, industria antolaketako ingeniaria eta finantza zuzendaritzan eta negozioetarako adimen artifizialean aritua.



# Manufaktura-industriako ETEetan produkzio-prozesuak eta makineria digitalizatzea



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, Martxoak 14. 9:30etatik 13:30etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa (CFAA), 202. eraikina, ELKARLAN aretoa. Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

## – Iraupena

4 ordu.

## – Plazak

24 pertsona.

## – Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
  - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
  - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produkzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Fabrika-plantaren mailan produkzio-ingurunea digitalizatzearen potentziala azaltzea, alderdi eta jardun-arlo nagusiak azaltzea eta digitalizatzeko progresiborako metodoak proposatzea.

\* Ondoren fabrikazio-laboregira bisita egiteko aukera egongo da.

## Prestakuntzaren edukia

- Monitorizatu beharreko ekipamendu motak (makineria, robotak, instalazioak...).
- Datu-iturri erabilgarriak (sentsoreak, PLCak, CNCak).
- Prozesuko datuak eskuratzetik erabakiak hartzeko informazio baliagarria.
- Datuak atzemateko eta kudeatzeko metodoak eta tresnak:
  - Eskuratzeko.
  - Monitorizazioa.
  - Biltegiatzea.
  - Tratamendua eta diagnostikoa.
  - Analisia eta hobekuntza.
- Informazioa integratzea eta bistaratzea (MES sistemak).
- Negozio-eredu berri posibleak (Pay per use eta beste batzuk).
- Digitalizazio-proiektu baterako metodoak eta tresnak.
- Nork bere buruari hausnartzeko ariketa.
- Hurbileko kasu praktikoak.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: SAVVY DATA SYSTEMS.

## Norekin



### Iñigo Bediaga

**Ideko-ko Ikerketa Taldearen arduraduna (Informazioaren, Komunikazioaren eta Automatizazioaren Teknologiak).**

Industria ingeniartzan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean, Bilboko Ingeniarien Eskolan.

2016az geroztik, Danobatgroup digitalizatzeko

estrategiaren arduradun teknologikoa da, Danobat, Soralue eta Goimek enpresetako I+G zuzendaritzekin koordinatuta eta Savvy Data Sistemekin lankidetzan estuan.

# Manufaktura-industriako ETEetan kudeaketa-sistemak digitalizatzea



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, Apirilak 11. 9:30etatik 13:30etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa (CFAA), 202. eraikina, ELKARLAN aretoa. Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

## – Iraupena

4 ordu.

## – Plazak

24 pertsona.

## – Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
  - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
  - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produkzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Kudeaketa-prozesuak eta ETE industrialetan lotutako eta sortutako datuak digitalizatzeko aukerak eta abantailak erakustea. Era berean, enpresaren prozesuei dagokienez, software soluzioen mapa argitzen saiatuko gara, eta lehentasunak ezartzeko eta ezartzeko proiektuak planteatuko ditugu.

\* Ondoren fabrikazio-laboregira bisita egiteko aukera egongo da.

## Prestakuntzaren edukia

- Kudeaketa-prozesuak eta DIGITALIZAZIOAREN abantailak arlo guztietan:
  - Komertziala.
  - Administratiboa eta ekonomiko-finantzariora.
  - Diseinua eta PLM (Product Life Management).
  - Erosketak eta hornikuntzak.
  - Ekoizpena.
  - Kalitatea.
  - Mantentze-lanak
  - Logistika.
  - Zerbitzuak.
- Zer da ERP? Ematen dituen abantailak. Existitzen diren software batzuk.
- Ekoizpena: ERP eta MES erlazioa eta gainerako eskuratze-mailak.
- Nork bere buruari hausnartzeko ariketa.
- Hurbileko kasu praktikoak.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: FAGOR AUTOMATION.

## Norekin



### Oier Zelaieta

Ideko-ko fabrikazio-prozesuen ikerketa-taldeko arduraduna.

Ingeniaritza tekniko mekanikoa Mondragon Unibertsitatean eta industria ingeniaria unibertsitate berean. Erreferentea produkzio-sistemen diseinuan eta hobekuntzan, tresnak, osagarriak eta ekipoak barne. “Lean Manufacturing” sistemen inplementazioan ere aditua da.

## Bezeroak eta talentua erakartzeko marka-estrategia



IZENA EMAN HEMEN

### – Datak eta ordutegia

Asteazkena, apirilak 17. 9:30etatik 13:30etara.

### – Formatua

Aurrez aurrekoa.

### – Lekua

BAT Dorrean (Kale Nagusia, 1, Bilbo, Bizkaia).

### – Iraupena

4 ordu.

### – Plazak

30 pertsona.

### – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik.
- Gerentziak, giza baliabideen arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

### Ikaskuntza-helburuak

Ikastaro honen helburua marka-estrategiak bezeroak eta talentua erakartzeko duen garrantziaz jabetzea da.

### Prestakuntzaren edukia

- Gure enpresaren balio-proposamena.
- Markaren posizionamendua.
- Gure enpresaren helburua.
- Markaren posizionamenduaren onurak.
- Merkatua marka diferentzialetik garatzea.
- Pertsonak bezero-esperientzian.
- Taldearen motibazioa marka-estrategiatik.
- Proiektu korporatiboa.
- Marka enplegatzailetik talentua erakartzea.

### Norekin



#### Elen Orcolaga

**Eurogap-eko Aholkularitzako zuzendaria**

Bere esperientzia profesionala % 100ean merkatura bideratuta dago, bezeroekiko eta kontsumitzaileekiko sentsibilitate handiarekin, eta enpresen balioa eta negozioa sortzeko ikuspegi

argiarekin, marken eta produktuen hausnarketatik, merkaturatzetik eta komunikaziotik abiatuta. Enpresa administrazio eta zuzendaritzan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, marketin masterra eta eskaeran oinarritutako merkataritza estrategien berrikuntza graduondokoa Georgia Tech University Atlanta AEBn.

# Pertsonen konpromisoa eta lan-absentismoa. Aldaketa kultural baten funtsezko faktoreak.



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, apirilak 25. 9:30etatik 13:30etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

BAT Dorrean (Kale Nagusia, 1, Bilbo, Bizkaia).

## – Irapena

4 ordu.

## – Plazak

30 pertsona.

## – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik:
  - pertsonen konpromisoari buruzko ideiak sendotu eta, aldi berean, haien egia batzuk agerian jarri behar dituztenentzat.
  - pertsonen konpromisoa bultzatzeko eta absentismoa arintzeko estrategiak garatzen ari direnentzat.
  - beren bidea kontrastatu nahi dutenentzat
  - aldaketa posiblea dela ikusi, entzun eta sentitu behar dutenentzat.
- Gerentziak, berrikuntzako arduradunak, negozio-garapeneko eta proiektu estrategikoetako arduradunak; pertsonen eta garapenaren arloetako arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

Ikastaro honen helburua pertsonen konpromisoa kudeatzeko gako ez jabetzea da, eta horrek laneko absentismoari zuzenean nola eragiten dion jakitea.

Era berean:

- ETEetan kultura-aldaketaren testuinguruan pertsonen konpromisoak duen garrantzia ulertzea.
- Lan-absentismoaren kausak eta ondorioak identifikatzea.
- Konpromisoa hobetzeko eta laneko absentismoa murrizteko estrategia eraginkorrak aztertzea, aplikazio praktikoa erraztuz.

## Prestakuntzaren edukia

- Aldaketaren eta ikaskuntzaren aurrean gizakiak dituen oinarrizko elementuak.
- Zer den kultura eta haren eraldaketaren elementu eragileak.  
Pertsonen konpromisoa:
  - Konpromisoaren definizioa eta dimentsioak.
  - Langileen konpromisoa sustatzeko estrategiak.
- Laneko absentismoa:
  - Absentismoaren azpiko kausak identifikatzea.
  - Absentismoaren ondorio nagusiak.
- Kultura-aldaketaren bidea:
  - Konpromisoa garatzeko jardunbide egokien kasuak eta adibideak.
  - Lan-absentismoa kudeatzeko eta murrizteko estrategiak.
- Edo zein da zure bidea? Norabide aldaketaren bat?

## Norekin



### Gonzalo Serrats

OPE Consultores-eko bazkide aholkularia.

Nire helburua pertsonen eta haien erakundeei beren garapenean laguntzea da, pasioa, zintzotasuna, erronka eta poza emanez. “Haztea (ni), hazten laguntzeko (beste batzuei)”, esan ohi dut. Nire asmoa da erakundeek ahalik eta

gehien aprobetxatzea pertsonen duten talentua, elkarrekiko konfiantza emanez. 30 urte daramatzat aholkularitza estrategikoko proiektuetan, gerentzietan laguntzeko proiektuetan, zuzendaritza-taldeetan, pertsonen eta haien konpromisoaren kudeaketan, barne-komunikazioan, berrikuntza-proiektuetan eta antolaketa-eraldaketan. Nire aurkezpen ofizialean jartzen du espezialista naizela pertsona eta kulturaren, coach exekutiboan eta taldeetan. Unibertsitateko hainbat masterretako irakaslea. Deustuko Unibertsitatean lizentziatu nintzenean, ekonomian eta enpresan, orduan hasi nintzen benetan ikasten eta, uste dut, etengabe ikasi dudala. Nire mundua ez dira erakundeak eta enpresak bakarrik, afizioz eta pasioz historialaria naiz, Napoleonen garaiko dibulgatzailea.



# Erakunde adimendunak: Ezagutza kritikoa eta adimen artifiziala, lehia-abantailak sortzeko gakoak



IZENA EMAN HEMEN

- **Datak eta ordutegia**  
Osteguna, ekainak 13. 9:30etatik 13:30etara.
  - **Formatua**  
Aurrez aurrekoa.
  - **Lekua**  
BAT Dorrean (Kale Nagusia, 1, Bilbo, Bizkaia).
  - **Iraupena**  
4 ordu.
  - **Plazak**  
30 pertsona.
  - **Norentzat**
    - 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik: haien emaitzak nola hobetu ulertzeko eta etorkizuna aurreratzen saiatzeko beharra edo interesa dutenentza:
      - ezagutza kritikoa kudeatzea.
      - ezagutza hori sistematizatzea tresna teknologikoak (adimen artifiziala) eraginkortasunez erabiltzeko.
      - testuingurua etengabe aldatzen denez, ikaskuntza prozesuen zati gisa txertatzea.
    - Gerentziak, berrikuntzako arduradunak, negozio-garapeneko eta proiektu estrategikoetako arduradunak; pertsonen eta garapenaren arloetako arduradunak.
- \* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

Ikastaro honen helburua zure enpresaren adimena kudeatzen ikastea da, helburuak lortzeko eta, horrela, zure etorkizuna bermatzeko. Beraz, abiapuntua enpresaren helburuak (lehentasunak) eta lehiakortasun-abantailak eta horien oinarri diren ezagutza kritikoa zehaztean datza. Enpresak duen edo behar duen ezagutzatik abiatuta, teknologiak (adimen artifizialak) emaitzak hobetzen nola lagun diezagukeen hausnar daiteke.

Enpresa bat adimentsua dela esan dezakegu bi elementu aldi berean kudeatzeko gai denean:

- **ORAINA:** batetik, badaki zer dakien (duen EZAGUTZAZ jabetzen da) eta formalki administratzen du emaitzak lortzeko.
- **ETORKIZUNA:** badaki zer jakin beharko duen bere helburu estrategikoak betetzeko, eta IKASI egiten du, etengabe egokitzen ari baita.

Tresna teknologikoak, beraz, lagungarriak dira ezagutza kudeatzeko eta ikasteko prozesuak optimizatzeko eta bizkortzeko, emaitzak hobetzeko.

Hona hemen ikastaro honetan landuko diren alderdietako batzuk:

- adimena, enpresaren etorkizuna bermatzen duen elementu estrategiko gisa.
- enpresak pertsonengan oinarritutako ezagutza-erakunde gisa.
- ikaskuntza, enpresa aldatzea, egokitzea eta berritzea ahalbidetzen duen prozesu kolektibo gisa.
- teknologian laguntzea aurrea hartzeko eta erabaki hobek hartzeko.

## Prestakuntzaren edukia

- Oinarrizko kontzeptuak: adimena, ezagutza, ikaskuntza eta adimen artifiziala.
- Antolamendu adimendunaren ezaugarriak.
- Adimen artifizial sortzailearen tresnak (Chat GPT, Bard, Geminis, Dall-e, etab.), Microsoften copilota.
- Nire enpresaren ezagutza kritikoa identifikatzeko eta kudeatzeko eta prozesuetan ikasteko errutinak sartzeko ekintza-plana.

## Norekin



### Javier Martínez Aldanondo

**Knowledge Workseko bazkidea eta Knocoko zuzendaria.**

25 urteko esperientzia ematen diet Espainiako eta Latinoamerikako enpresei eta erakundeei, erakunde adimendunak garatzen laguntzeko.

Enpresaren 2 aktibo nagusiak kudeatzeko moduari buruzko hitzaldiak eta tailerrak ematen ditut: ezagutza eta taldean ikasteko gaitasuna.

Knowledge Works-eko bazkidea naiz, Knocoko zuzendaria (nazioarteko aholkularitza-sarea). NBEko, Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundeko (IAEA), FAOko, Munduko Bankuko eta Garapenerako Amerikarteko Bankuko aholkularia naiz ezagutzaren kudeaketaren eta ikaskuntzaren arloan. «Cadabra, Ikasteko Magia» gunea zuzentzen dut ABRA Ikaskuntza Laborategiaren barruan. Hileko zutabe bat argitaratzen dut 2006tik. Zuzenbidea ikasi nuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Internet Management master bat egin nuen Institut Català de la Tecnologia-n, eta ezagutza kudeatzeko eta ikasteko kultura kudeatzeko programak eman nituen hainbat unibertsitatetan.

# Saldu ondoko zerbitzua: kostuen zentrotik negozio-aukerara



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, maiatzak 9. 9:30etatik 13:00etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Arima Hotel (Magnolia Gela). Miramon pasealekua 162, Donostia.

## – Iraupena

3,5 ordu.

## – Plazak

40 pertsona.

## – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko industria-enpresa txiki eta ertainentzat soilik, eta, ahal dela, produktu propioa dutenentzat eta honako hauetan beharra edo interesa dutenentzat:
  - bezeroen beharretara egokitzea, negozio-estrategia birpentsatzea, negozio-lerro berriak sortzea, produktu eta zerbitzu berriak garatzea.
  - eraldaketa digitalari ekitea, 4.0 Industrian erreferente izatea.
- Zuzendaritza Nagusia, Negozio Garapeneko zuzendariak, Zerbitzu Zuzendaritza edo Salmenta Ondokoa.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Saldu ondoko negozioaren eraldaketa ezagutzea, produktuetan IoT teknologia txertatzeari esker.
- Zure produktuaren edo instalazioaren bizi-zikloan bezeroarekiko harreman-ereduak ulertzea.
- Nola prestatu salmenta erreaktibo batetik zerbitzuen salmenta proaktibo batera igarotzeko.
- Moneta-zerbitzuen eta -ereduen paketizazioa egitea.
- Euskadiko industria-enpresa txiki eta ertainen berrogeita hamar proiektutik gorako kasu errealak ezagutzea.

## Prestakuntzaren edukia

- Kontzeptuak eta teknologiak IoT industria-inguruneetarako.
- Zerbitzuen salmentaren merkataritza-prozesuaren gakoak.
- Bezeroarekiko harreman-ereduak bizi-zikloan zehar.
- Saldu ondoko zerbitzuen proposamen komertziala diseinatzearen garrantzia.
- Saldu ondoko zerbitzu-kontratu batean kontuan hartu beharreko parametro nagusiak.
- Teknologia digitalak bezeroaren esperientzia hobetzeko palanka gisa.
- Teknologia digitalak, saldu ondoko negozioari eskalagarritasuna emateko palanka gisa.
- Zure saldu ondoko negozioa kontrolatzeko funtsezko adierazleak.
- Euskadiko ETE industrialek egindako bidearen aurkezpena.

## Norekin



### Idoia Iceta Hernández

**Digitalentuko bazkide zuzendaria.**

Industria Ingeniaritza Nafarroako Unibertsitatean, ESADEn PROMOCIONA Programa emakume zuzendarientzat eta IESEn Exwindoive Garapen Iraunkorra eta ESG Programa. Ibilbide luzea du osagai tekniko eta teknologiko handiko enpresa eta proiektuen zuzendaritzan.

DIGITALENTU eta ADI REVOLUTION enpresen sortzaileetako bat da, eta industria-enpresei laguntzen die beren negozio-ereduaren berrikuntzan eta digitalizazioan, berrikuntzan eta iraunkortasunean palankatutako negozio berriak martxan jartzen. Gainera, INDI Partners-en sortzaileetako bat da, oinarri teknologikoko enpresa-proiektuen aldeko apustua egiten duen inbertsio-ibilgailua, industria-sektorea iraultzen duena.

# Ezagutu nola lagun diezazukeen negozio-ereduaren berrikuntzak zure ETEaren oraingo eta etorkizuneko erronketan lan egiten



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, uztailak 4. 9:30etatik 13:30etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Garaia Parke Teknologikoa. Goiru kalea 1, Arrasate.

## – Iraupena

4 ordu.

## – Plazak

40 pertsona.

## – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko enpresa txiki eta ertainentzat soilik, eta hurrengo interesak edo beharrak dutenentzat:
  - bezeroen beharretara egokitzea, negozio-estrategia birpentsatzea, negozio-lerro berriak sortzea, produktu eta zerbitzu berriak garatzea.
  - eraldaketa digitalari ekitea, 4.0 industrian erreferente izatea, merkatu berrietan sartzea, bezero berriak bilatzea, errentagarritasuna hobetzea, salmentak handitzea, nazioartekotzearen aldeko apustua egitea.
- Gerentziak, Berrikuntzako arduradunak, negozio-garapeneko eta proiektu estrategikoetako arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

### Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Negozio-ereduetan oinarritzko ezagutzak eskuratzea: zer diren, zergatik berriro negozio-ereduan, eragina enpresaren emaitzetan.
- Merkatuan dagoeneko frogatuta dauden estrategia eta konponbideen adibideak ezagutzea, "Negozio Ereduen Ereduak" izenekoak, negozio-eredua aberasteko eta hobetzeko inspirazio-iturri gisa balio dutenak.
- Azaldu nola eralda daitezkeen enpresak beren negozio-ereduetan berrikuntzak eginez, ETEei egokitutako metodologia erabiliz eta euskal enpresen adibideekin.
- Euskal enpresentzat berrikuntza mota hori sustatzeko dauden laguntza-tresnak ezagutzea.

### Prestakuntzaren edukia

- Negozio-ereduak: zer diren, zergatik berriro negozio-ereduan, eragina enpresaren emaitzetan.
- "Negozio-ereduen patroien" hastapenak: merkatuan dagoeneko frogatuta dauden strategiak eta irtenbideak, negozio-eredua aberasteko eta hobetzeko inspirazio-iturri direnak.
- Nola ikasi aukerak identifikatzeko begirada bat izaten.
- Aukerak identifikatzeko ariketa.

### Norekin



#### Jon Aldazabal Basauri

**Mondragon Unibertsitatearen / MIK Koop Estrategia, Negozioen Garapena eta Enpresa Kudeaketa.**

Enpresa Zientzietan doktorea Mondragon Unibertsitatean; PMP (Project Management Professional) Project Management Institute-n (AEB) eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Masterra (MBA).

Enpresagintzan Graduatua, Mondragon Unibertsitatean. Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako goi mailako tituluduna Elgoibarko (Mondragon Unibertsitatea) enpresa-kudeaketako eskolan, Administrazio eta Finantzetako goi mailako teknikaria eta IESEn berrikuntza zuzendaritzako ikastaroa egin du. Gaur egun, ikertzailea, irakaslea eta aholkularia da MIK Koop./Mondragon Unibertsitatean, aurretik MIK zentroko proiektu-zuzendaria izan zen. 2003ko abendutik, estrategiarekin, berrikuntzaren kudeaketarekin, produktu berrien diseinuarekin eta garapenarekin, negozio-ereduekin eta antolatzeke moduekin lotutako oinarritzko ikerketako eta ikerketa aplikatuko hainbat proiektutan parte hartu du.



#### Álvaro Sabas

**C2B Negozioaren Gerentzia eta Garapena.**

Filosofian lizentziatua UPV/EHUn eta Giza Baliabideetako masterra Deustuko Unibertsitatean. C2Bko gerentea da, eta enpresa handietan eta aholkularitza-enpresa ezagunetan egin du lan. Esperientzia du enpresa-estrategian, digitalizazioan eta -berrikuntzan. C2Btik pertsonen gaitasunetan eta antolaketa-lehiakortasunean eragitea bilatzen du.

# Gobernantza eta finantza-eraginkortasuna, enpresa-berrikuntza bultzatzeko



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, maiatzak 16. 9:00etatik 12:00etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Elkargi. Albert Einstein kalea, 25, 01510 Gasteiz, Araba. Miñanoko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

## – Iraupena

3 ordu.

## – Plazak

20 pertsona.

## – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik:
  - enpresaren barruan berrikuntza-proiektuak finantzatzeko gako nagusiak ezagutzeko beharrarekin edo interesarekin.
  - berriazko kezka eta beharrarekin, negozio-plan sendo bat eraikitzeko eta bere berrikuntza-proiektuetarak finantzaketa-aukerarik egokiena zein den identifikatu eta erabakitzeko.
- Gerentziak, ekonomia- eta finantza-arduradunak, berrikuntza-arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

- Enpresako berrikuntza-proiektuen finantzaketari ekitea, enpresa txiki eta ertainei begira, batez ere enpresa txikiei begira.
- Errentagarritasuna maximizatzeko eta finantza-baliabideak askatzeko gakoak izatea, proiektuei ekiteko.
- Proiektu berriei ekiteko finantza-baliabide propioak identifikatzea.
- Zure enpresan erabakiak hartzea errazten duten eta negozioaren jarraitutasunean laguntzen duten tresnak ezagutzea.

## Prestakuntzaren edukia

- Erronka nagusiak egungo kudeaketa ekonomiko-finantzarioan, Elkargiko Zenón Vázquez Directo General-en eskutik.
- Negozioaren jarraipena ziurtatzeko gobernantza-tresnak.
  - Familia-protokoloa edo bazkideen ituna familia-enpresetan edo hainbat bazkideek sortutako enpresetan gobernantza arautzen duten bi tresna dira, eta, beraz, jabetzako ondorengotza-prozesua antolatzen dute, negozioak alderdi horretan jarraituko duela bermatuz.
  - Enpresan erabakiak lasaiago hartzen laguntzen dute, berrikuntza hobeto txertatzeko.
- Negozioaren errentagarritasuna maximizatzeko, finantza-baliabideak askatzeko eta berrikuntza-proiektuetara bideratzeko gakoak.
  - Negozio errentagarria: merkataritza-eskaintza errentagarri eta erakargarriak.
  - Zirkulatzaila: hornitzaileak, bezeroak, stockak eta diruzaintza.
  - Finantzaketa: egitura optimoa eta finantza-erakundeak.

## Norekin



### Zenón Vázquez

#### Elkargiko zuzendari nagusia.

EAZ-n lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, Kingston-London-en Finantzetan espezializatuta, eta Enpresen Goi Zuzendaritzako PADE-Programa ere burutu du IESEn.

Ibilbide oparoa du finantza- eta enpresa-munduan, bai estatuan, bai nazioartean. Zehazki, 2014tik arrakastaz bete du bere lan profesionala, CIE-Automotive kotizatuaren finantza-arduradun gisa (CFO). Urteotan metatutako finantza-ingurunearen sakoneko ezagutza izateaz gain, finantza-sektoreko konpainietan, kudeaketaren kontrolean eta kontu-ikuskaritzan eskarmentua du. 2019ko apiriletik Elkargiko zuzendari nagusia da.



### Mikel Alberdi Arambarri

#### Elkargiko familia-enpresako arduraduna.

Zuzenbidean lizentziatua EHUn, enpresen aholkularitza juridikoan masterra IE Business Schoolen, MBA-European Management Programme Deustuko Unibertsitatean, Audencia E.S.Cn, Bradford School of Management-en.

Elkargiko familia enpresako arduraduna, merkataritza, zerga eta familia-enpresan aditua: familia-protokoloak egitea eta ezartzea. Bere ibilbide profesionala hainbat abokatu-bulegotan garatu du.



### Susana Cámara

#### Elkargiko finantza-kudeatzailea.

18 urte baino gehiagoko esperientzia du Elkargin, eta ibilbide sendoa du banku-arriskuaren analisiaren esparruan, eta proiektu berritzaileetarako finantzaketa-eragiketen ebaluazioan espezialista gisa nabarmentzen da.

Gainera, 64 bis artikuluak Elkargiren Arabako bulegoan gaitutako irtenbide fiskalari eta finantzarioari lotutako eragiketak administratzen ditu. Irtenbide horri esker, proiektu berritzaileak dituzten enpresek likidezia lor dezakete, emaitza positiboak dituzten enpresa finkatuek emandako finantzaketaren bidez. Ondorioz, azken horiek nabarmen optimizatzen dituzte I+G+b jarduerengatikoko kenkari fiskalak.



# Nola finantzatu berrikuntza: zure berrikuntza-proiektua egin ezazu



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Azteakena, maiatzak 22. 9:00etatik 12:00etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Elkargi. Albert Einstein kalea, 25, 01510 Gasteiz, Araba. Miñanoko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

## – Iraupena

3 ordu.

## – Plazak

20 pertsona.

## – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik:
  - enpresaren barruan berrikuntza-proiektuak finantzatzeko gako nagusiak ezagutzeko beharrarekin edo interesarekin.
  - berriazko kezka eta beharrarekin, negozio-plan sendo bat eraikitzeko eta bere berrikuntza-proiektuetarako finantzaketa-aukerarik egokiena zein den identifikatu eta erabakitzeko.
- Gerentziak, ekonomia- eta finantza-arduradunak, berrikuntza-arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

### Ikaskuntza-helburuak

- Enpresako berrikuntza-proiektuen finantzaketari ekitea, enpresa txiki eta ertainei begira, batez ere enpresa txikiei begira.
- Finantzaketarako ezaugarri eta baldintza alternatiboak ezagutzea eta enpresa-berrikuntzako proiektu berriei ekiteko finantza-baliabideak identifikatzea.
- Erabakitzea zein finantzaketa-alternatiba den egokiena zure proiekturako, dagoen fasearen arabera.

### Prestakuntzaren edukia

- Berrikuntza-proiektuaren etapa bakoitzean zenbat finantzaketa behar duzun eta hori lortzeko modurik eraginkorrena zein den aztertzen ikasi. Gutxieneko produktu bideragarria, prototipoa eta azken produktua.
- Finantzaketa-aukerak:
  - Dirulaguntzak.
  - Berrikuntza Funtsa.
  - Private equity.
  - Banku-finantzaketa.
- Proiektu berritzaileak finantzatzeko arrakasta izan duten bi kasu:
  - edo ETEa, produktu-berrikuntzaren adibidea.
  - edo ETEa, prozesuen berrikuntzaren adibidea.

### Norekin



#### Laura Mata

##### Elkargiko finantza-kudeatzailea.

Gizarte-ekonomiako enpresetan eta lankidetzeta eta nazioartekotze-proiektuen finantzaketan aditua. Lehenago Elkargiko Merkataritza Zuzendaritzan ardurak izan zituen, eta Oinarrin Negozio Garapeneko zuzendaria eta zuzendari nagusia izan zen Elkargirekin bat egin aurretik.

Esperientzia luzea du baliabideen plangintzan, produktu berrien kudeaketan eta estrategien definizioan.

# Eraiki negozio-plan sendo bat zure enpresaren berrikuntza finantzatzeko



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Osteguna, maiatzak 30. 9:00etatik 12:00etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Elkargi. Albert Einstein kalea, 25, 01510 Gasteiz, Araba. Miñanoko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

## – Iraupena

3 ordu.

## – Plazak

20 pertsona.

## – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik:
  - enpresaren barruan berrikuntza-proiektuak finantzatzeko gako nagusiak ezagutzeko beharrarekin edo interesarekin.
  - berriazko kezka eta beharrarekin, negozio-plan sendo bat eraikitzeke eta bere berrikuntza-proiektuetarako finantzaketa-aukerarik egokiena zein den identifikatu eta erabakitzeke.
- Gerentziak, ekonomia- eta finantza-arduradunak, berrikuntza-arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

- Enpresako berrikuntza-proiektuen finantzaketari ekitea, enpresa txiki eta ertainei begira, batez ere enpresa txikiei begira.
- Negozio-plan sendo bat eraikitzea, finantza-erakundeen aurrean defendatzeko.
- Erakunde finantzatzaile bat I+G+b proiektu baten bideragarritasunaz konbentzitzeko gakoak izatea.

## Prestakuntzaren edukia

- Negozio-plan sendo bat eraiki:
  - Proiektuaren emaitzen kontuaren proiektzioa.
  - I+G+b proiektu batean funtsezkoak diren parametro ekonomiko-finantzarioak: marjinak, errentagarritasuna eta finantzaketa-egitura.
  - Proiektuaren bideragarritasunaren azterketa: ratioak (VAN eta TIR).
- Defendatu zure negozio-plana: Finantza-erakundeek arrisku-analisan erabiltzen dituzten irizpideak.

## Norekin



### Pablo Azurmendi

#### Elkargiko finantza-aholkularia.

Enpresen administrazio eta zuzendaritzan lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, finantza-aholkularitzako eta arriskuen analisiko zerbitzuak eskaintzeko eskarmentuarekin.

PwC-n lan egin zuen, nazioarteko hainbat talderen auditoretza egiten, eta start-up-en arloan finantza-arduraduna izan da. Gaur egun Elkargin finantza-aholkularia da.



### Susana Cámara

#### Elkargiko finantza-kudeatzailea.

18 urte baino gehiagoko esperientzia du Elkargin, eta ibilbide sendoa du banku-arriskuaren analisiaren esparruan, eta proiektu berritzaileetarako finantzaketa-eragiketen ebaluazioan espezialista gisa nabarmentzen da.

Gainera, 64 bis artikuluak Elkargiren Arabako bulegoan gaitutako irtenbide fiskalari eta finantzarioari lotutako eragiketak administratzen ditu. Irtenbide horri esker, proiektu berritzaileak dituzten enpresek likidezia lor dezakete, emaitza positiboak dituzten enpresa finkatuek emandako finantzaketaren bidez. Ondorioz, azken horiek nabarmen optimizatzen dituzte I+G+b jarduerengatiko kenkari fiskalak.

## Nola berritu produktua bere osotasunean hartuta



IZENA EMAN HEMEN

### – Datak eta ordutegia

Azteazkena, Ekainak 19. 9:30etatik 13:30etara.

### – Formatua

Aurrez aurrekoa.

### – Lekua

Arima Hotel (Magnolia Gela). Miramon pasealekua 162, Donostia.

### – Iraupena

4 ordu.

### – Plazak

35 pertsona.

### – Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik, produktu berriak garatzeko beharra edo interesa duten ETEentzat.
- Gerentziak, Berrikuntzako arduradunak, negozio-garapeneko eta proiektu estrategikoen arduradunak.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

### Ikaskuntza-helburuak

Produktua bere osotasunean ulertzea, bezeroarentzako balioa garatzeko moduak lantzeko: alderdi fisiko eta ukigarrietatik, ukiezinetatik, digitaletatik, finantzarioetatik...

### Prestakuntzaren edukiak

- Produktu-zorria aztertzea.
- Produktu estrategikoak hautatzea.
- Produktu-maila ezberdinak identifikatzea.
- Maila bakoitzerako berrikuntza-aukerak aztertzea.
- Berrikuntza-maila bakoitzak dakartzan onurak zehaztea.
- Digitalizazioak berrikuntzan nola lagun dezakeen identifikatzea.
- Berrikuntza-maila bakoitzaren lehia-abantaila baloratzea.
- Nola bihurtu produktu bat zerbitzu batean.
- Esperientziaren garrantzia produktuaren konfigurazioan.
- Konfiantza, produktuan balioa sortzeko gako gisa.

### Norekin



#### Elen Orcolaga

##### Eurogap-eko Aholkularitzako zuzendaria

Bere esperientzia profesionala % 100ean merkatura bideratuta dago, bezeroekiko eta kontsumitzaileekiko sentsibilitate handiarekin, eta enpresen balioa eta negozioa sortzeko ikuspegi

argiarekin, marken eta produktuen hausnarketatik, merkaturatzetik eta komunikaziotik abiatuta. Enpresa administrazio eta zuzendaritzan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, marketin masterra eta eskaeran oinarritutako merkataritza estrategien berrikuntza graduondokoa Georgia Tech University Atlanta AEBn.



**I+G+b nazioartekotzeko  
prestakuntza**

# I+G+b nazioartekotzea. EBren eginkizun dinamizatzailea eta finantzatzailea.



## – Datak eta ordutegia

Asteartea, otsailak 27. 09:00etatik 11:00etara.

## – Formatua

Online.

## – Lekua

Esteka plaza baieztatzerakoan bidaliko da.

## – Iraupena

2 ordu.

## – Plazak

40 pertsona.

## – Norentzat

Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik:

- Horizonte Europarako I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat.
- Horizonte Europako programetan I+G+b proiektuak aurkezten eta prestatzen eskarmentua dutenentzat.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.



---

## Ikaskuntza-helburuak

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa berria aurkeztea eta I+G+b partzuergo irabazleetan posizionamendu hobea lortzeko gakoak ezagutzea.
- Eskakizun horizontalak aztertzea, hala nola Social Sciences and Humanities, Gender Dimension eta planaren nahitaezotasuna, Open Sciences Practices, nazioarteko lankidetzarako irizpide berriak...

---

## Prestakuntzaren edukia

- Europako I+G+b estrategia. Zergatik kolaboratu eta noiz?
- Parte-hartzearen abantailak eta eragozpenak (merkatuetara irekitzea, hirugarrenek I+G+b -rako sarbidea izatea, jabetza intelektuala partekatzea, baterako ustiapena, etab.).

---

## Norekin



### **Javier Medina Antón**

**Qi EUROPEko bazkide-zuzendari nagusia.**

Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko Masterra, IESE Business School-en. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko Women Leadership programako mentorea. 1995 urtetik geroztik, bere lanbide karrera garatu du negozio-eredu berrien diseinu eta garapen estrategikoan (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, seed & startup kapitala, private equity, venture capital, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+b proiektuak (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta Venture Capital Method balorazioa, egituraketa, negoziozia eta salmenta/aliantzak), bai eta I+G+b proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatzea ere, eta negozio berriak garatzea (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundera eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialetan, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena dutenetan.

## Europako I+G+b proiektuen plangintza estrategikoa



IZENA EMAN HEMEN

### – Datak eta ordutegia

Asteartea, martxoak 12. 09:00etatik 11:00etara.

### – Formatua

Online.

### – Lekua

Esteka plaza baieztatzerakoan bidaliko da.

### – Iraupena

4 ordu.

### – Plazak

40 pertsona.

### – Norentzat

Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik:

- Horizonte Europarako I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat.
- Horizonte Europako programetan I+G+b proiektuak aurkezten eta prestatzen eskarmentua dutenentzat.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa berria ezagutzea, haren egitura berria, helburuak, modalitateak, aurrekontua, etab., H2020 programarekiko desberdintasunak argi eta garbi identifikatuz (destinations, clusters, associated partners, do no significance harm,...).
- Teknologia bati lotutako negozio-plan bat edukitzearen garrantzia ulertzeko.
- Arrakasta-proposamen bat koherentziaz, ikuspegi estrategikoz, analitikoaz, operatiboz eta ekonomiko-administratiboz egiteko gaitasunak eskuratzea, lehenetsun politikoekin eta 2021-2024 programa estrategikoarekin lotutako irizpideak barne.

## Prestakuntzaren edukia

- Nola egin banakako ibilbide-orria (gutxienez 3 urterako)? Epeak, baliabideak, finantzaketa-programen konbinazioa, kostuak, itzulerak, etab.
- Europako proiektuak: Zergatik egin behar du enpresak plangintza estrategikoa eta I+G+b arlokoa? Denbora-, finantza- eta merkatu-ikuspegia.
- Solaskide asko, baina estrategia bakarra.
- Enpresaren azterketa, I+G+b-ko beharrak optimizatzeko. Dena ez da I+G+b.

## Norekin



### Javier Medina Antón

Qi EUROPEko bazkide-zuzendari nagusia. Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko Masterra, IESE Business School-en. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko Women Leadership programako

mentorea. 1995 urtetik goertzik, bere lanbide karrera garatu du negozio-eredu berrien diseinu eta garapen estrategikoan (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, seed & startup kapitala, private equity, venture capital, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+b proiektuak (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta Venture Capital Method balorazioa, egituraketa, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), bai eta I+G+b proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatzea ere, eta negozio berriak garatzea (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundera eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialetan, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena dutenetan.

# Horizonte Europara sartzeko ikastaroak, RIS3 gaiaren arabera



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

Asteartea, apirilak 16. 08:30etatik 15:00etara.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.  
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

## – Iraupena

6,5 ordu.

## – Plazak

35 pertsona.

## – Norentzat

Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik:

- Horizonte Europarako I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat.
- Horizonte Europako programetan I+G+b proiektuak aurkezten eta prestatzen eskarmentua dutenentzat.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa berria, egitura berria, helburuak, modalitateak, aurrekontua eta abar ezagutzea, Horizonte 2020 programarekiko desberdintasunak argi eta garbi identifikatuz.
- Helburuak, research output, produktua, outcome-a, inpaktua eta Europako Batzordeak espero dituen inpaktu motak bereizteko proposamenak idazteko gaitasuna hobetzen duten ereduak ezagutzea eta praktikatzea.
- Teknologia lehiakortasun-abantaila jasagarri, produktibitate edo industria-lidergo gisa itzultzen ikastea, produktu teknologiko batek merkatuan dituen porrot-akats nagusiak identifikatuz. Negozio-eredua funtsezkoa izan daiteke proposamen arrakastan edo porrotean.
- Teknologia bati lotutako negozio-plan bat edukitzearen garrantzia ulertzea.

## Prestakuntzaren edukia

- Horizonte Europa fabrikazio aurreratuaren eremuan.
- Horizonte Europa energia garbien esparruan.
- Horizonte Europa bio/osasunaren eremuan.

## Norekin



### Javier Medina Antón

**Qi EUROPEko bazkide-zuzendari nagusia.**  
Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea.  
Negozio Energetikoetako eta PDGko Masterra, IESE Business School-en. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko Women Leadership programako

mentorea. 1995 urtetik goerotik, bere lanbide karrera garatu du negozio-eredu berrien diseinu eta garapen estrategikoan (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, seed & startup kapitala, private equity, venture capital, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+b proiektuak (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta Venture Capital Method balorazioa, egituraketa, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), bai eta I+G+b proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatzea ere, eta negozio berriak garatzea (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundera eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialetan, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena dutenetan.

# Horizonte Europarako I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko ikastaro aurreratua



IZENA EMAN HEMEN

## – Datak eta ordutegia

- 1 saioa.** Asteartea, maiatzak 21. 09:00etatik 14:00etara.
- 2 saioa.** Asteartea, maiatzak 28. 09:00etatik 14:00etara.
- 3 saioa.** Asteartea, ekainak 4. 09:00etatik 14:00etara.
- 4 saioa.** Asteartea, ekainak 11. 09:00etatik 14:00etara.

\* Lau saioetan parte-hartzea derrigorrezkoa da.

## – Formatua

Aurrez aurrekoa.

## – Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.  
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

## – Iraupena

20 ordu.

## – Plazak

30 pertsona.

## – Norentzat

Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik:

- Horizonte Europarako I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat.
- Horizonte Europako programetan I+G+b proiektuak aurkezten eta prestatzen eskarmentua dutenentzat.

\* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

## Ikaskuntza-helburuak

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa berria, egitura berria, helburuak, modalitateak, aurrekontua eta abar ezagutzea, Horizonte 2020 programarekiko desberdintasunak argi eta garbi identifikatuz.
- Arrakasta-proposamen bat egiteko gaitasunak eskuratzea, lehentasun politikoekin eta 2021-2024 programa estrategikoarekin lotutako irizpideak barne.
- Helburuak, research output, produktua, outcome-a, inpaktua eta Europako Batzordeak espero dituen inpaktu motak bereizteko proposamenak idazteko gaitasuna hobetzen duten ereduak ezagutzea eta praktikatzea.
- Teknologia lehiakortasun-abantaila jasangarri, produktibitate edo industria-lidergo gisa itzultzen ikastea, produktu teknologiko batek merkatuan dituen porrot-akats nagusiak identifikatuz. Negozio-eredua funtsezkoa izan daiteke proposamen arrakastan edo porrotean.
- Europako Batzordearen ebaluazio-irizpideak zehatz-mehatz ezagutzea eta horiek betetzeko proposamenak nola bideratzen jakitea.
- Teknologia bati lotutako negozio-plan bat edukitzearen garrantzia ulertzea.
- Operazio- eta finantza-gaitasuna koherentziaz defendatzea.
- Argi eta garbi bereiztea azpikontratazioa eta ondasun eta zerbitzuen erosketak.

## Prestakuntzaren edukia

- 1. Horizonte Europaren ingurune orokorra eta egitura:
  - Lehentasun politikoak eta agenda estrategikoa 2019-2024 eta 2025-2027 zirriborroa.
  - Plan estrategikoa 2021-2024 eta 2025-2027 zirriborroa.
